

PLAZA BERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

17-10-30 23. ALEA



Azoka eguna
argazkitan

2. ORR. ►►

Etxez etxeko laguntza
zerbitzuaren finantziazioa

5. ORR. ►►

Euskara sustatzeko
erronka

10. ORR. ►►

Gazteart, arte elkartrukerako

8. ORR. ►►



Bustitik joan da Azoka eguna

Urriaren 1ean egin zen Zizurkil XX. Azoka berezia eta eguraldia izan zen protagonista. 20 edizioetako eguraldi euritsuenari egin behar izan zioten aurre bertaratuek. Arratsaldean lasto altxatze txapelketa eta herri kirol saioa ere zimiterioan egin behar izan ziren. Hala ere, hurbildutakoek izan zuten zer ikusi, zer erosi eta zerekin goza.



Kataluiniar prozesuari **babesa**

Azken asteetan elkarretaratze bat baino gehiago egin dira Kataluiniar herriari babesa azaltzeko.

Irailaren 20an erreferenduma galarazteko guardia zibilak egindako atxilo-eten ostean egin zen lehen elkarretaratzea, EH Bilduk deituta. Urriaren 1ean Aiztondoko ordezkari bat Lladon izan zen (Zizurkilekin senidetutako herria) bertako galdeketa babesa eskaint-

zen, tartean ziren Zizurkil eta Adunako alkateak ere. ANC eta OMNIUM elkarreketako buruak espexera bidali ostean berri, Gure Esku Dago erabakitze eskubidearen aldeko ekimenak Euskal Herri osoan deitu zituen elkarretaratzeak eta Zizurkilen ere egin zen.



3

Apoyo al proceso catalán

En las últimas semanas se han realizado varias concentraciones para apoyar el

derecho a decidir de los y las catalanas y denunciar la represión del estado. El día 1 de

octubre una delegación de Aiztondo se traslado a Lladó para apoyar el referéndum

que se realizó sin incidencias en el municipio hermano con Zizurkil.

Minbiziaren aurkako martxa **arrakastatsua**

Gipuzkoako minbiziaren aurkako elkarreketak deituta martxa jendetsua egin zen Urriaren 7an. Aiztondo osoko he-

Éxito de la iniciativa Aiztondo Martxa contra el cáncer, celebrado el 7 de octubre entre Zizurkil y Villabona.

rritarrek eta Udal ordezkariak Zizurkilgo Joxe Arregi plazan elkartu ziren eta hamaiketako egin ostean, erraldoiekin Villabonara joan ziren kalejiran. Bertan ekitaldi gehiago izan ziren eta Villabona eta Zizurkilgo Udalek Zarauzkoari eman zioten hurrengo urteko jaia antolatzeke erreleboa.



Presoen eskubideen alde, Aiztondora eguna



Zizurkilen egin da aurtengo Aiztondora Eguna. Euriagatik zimitetiora mugatu zen aldarrikapena eta festa uztartu zituen

arratsaldea, baina giro ederra sortu zen bertaratuen artean eta presoen arloan urratsak ematea aldarrikatu zuten.

Plaza berriak eragindako arazoak konpondu nahian

Datozen asteetan gelditzen diren lanak egin eta plaza amaituta izatea espero du Udalak.

4



Plazako eraberritzearen ondorioz zenbait arazo sortu dira azken hilabeteetan. "Nagusiena da ura sartu dela Pantxikanen. Plaza amaitzen ari zirela suma-

tu genuen zerbait ez zegoela ondo eta euriteak berehala izan zirenean baieztatu zen. Neurketa topografikoak egin ditugu eta frogatuta geratu da proie-

«Udalari ez dio gastu gehigarririk ekarri, enpresak hartuko du bere gain»

ktuan jasota zegoen aldapa edo desnibela ez diotela eman plazari. Ondorioz, Pantxikane aurreko zati hori berriz altza behar du enpresa eraikitzaileak eta proiektuan datorren desnibela eman. Udalari lan horiek ez diote gastu gehigarririk ekarriko enpresak ez zuelako proiektukoa bete baina herritarrei astebete bateko eragozpenak eragingo dizkie. Barkamena eskatzea dagokigu baina hobe izango da orain zuzentzea pla-

za benetan amaitzeko", azaldu digu Joxe Mari Luengo alka-teak. Horrez gain sareta edo rejillak ere jartzen hasi gara Portxeta aldetik etortzen den ura jasotzen laguntzeko. "Plazan hoditeria berria jarri denez kapazitatea ere handitu da eta uste dugu honekin konponduko dugula arazoa".

Gainontzeko altzariak

Piboteekin ere izan dira arazoak. "Pibote berriak dira, itxuraz politak baina fabrikatik edo sortzetik arazoak ekarri dituztenak, orain artean frogatu ga-beak ziren eta enpresak aldatu egingo ditu". Plaza amaitzeko loreontziak ere jarriko dira eta banku gehiago. Zuhaitza berriz otsaila aldera jarriko da aurrez esan bezala.

Cambios para finalizar el proyecto de la plaza

Tras la renovación de la plaza P.M. Otaño, han surgido algunos inconvenientes. "El mayor problema lo ha causado el mal encauzamiento de las aguas pluviales. Cuando terminaron las obras, sospechamos que había un error y este se confirmó con la primera tormenta. Hemos realizado estudios topográficos y ha quedado probado que a

la parte izquierda de la plaza no se le dio el desnivel indicado en el proyecto" explica el alcalde Joxe Mari Luengo. Por ello, se ha cerrado la parte que está frente a Pantxikane para levantar el suelo y aplicarle el desnivel que debía haber tenido. Estos trabajos no implicarán un gasto extra al Ayuntamiento ya que es responsabilidad de la em-


presa. Sin embargo, se cerrará para el tráfico esa zona de la plaza durante unos días. "Lo único que nos queda es pedir perdón, pero ahora es el momento de rectificar lo que no se hizo bien" añade Luengo. Además, el Ayuntamiento prevé instalar rejillas para ayudar en la recogida de aguas pluviales. "Se han instalado nuevas tuberías con más

capacidad y creemos que con esto se solucionarán los problemas", afirma.

Mobiliario

En cuanto a los pivotes, se cambiarán los que se instalaron. "Son pivotes nuevos y bonitos, pero con algunos defectos de fabrica. Se instalarán unos nuevos y se colocarán nuevas macetas con flores y nuevos bancos".

Frontoian zenbait egokitzapen



Frontoian zenbait egokitzapen egin berri ditu Udalak, zehatz esanda, rokodromoa

dagoen aretoaren egoera hobetzeko lanak izan dira. "Urak ez daude bideratuta.

Hezetasun handia dago eta inguru hori kaltetu egiten zuen nabarmen hezetasun horrek"

azaldu du alkateak. Egoera aztertuta atera zuten arazoaren sorburua. "Egin beharreko lanak ez daude ondo eginda, tela asfaltikorik ez dago jarrita, gainera lorategi txiki bat dago rokodromora itsatsita eta lurretik barrena ura filtratu egiten zen frontoiko geletara. Beraz tela asfaltikoa bota da, eta hoditeria begiratu eta zuzendu dira, asko itxita baitzeuden". 7.000 euro inguruko aurrekontua duten lanak dira. "Aspaldiko urteetan zegoen eskaera zen rokodromoaren erabiltzaileen aldetik eta orain emango zaie erantzuna" zehaztu du alkateak.

5

Trabajos para mejorar el rocódromo

El Ayuntamiento ha realizado algunos trabajos de mejora en el frontón, en concreto, se tratan de mejoras para evitar la humedad existente hoy en día en la zona del rocódromo. "Las aguas

no están canalizadas adecuadamente y hay una gran humedad que ha erosionado la zona del rocódromo en los últimos años", explica el alcalde. Se ha realizado un estudio para dar con la solu-

ción adecuada. "Los trabajos que se debían haber acometido en su día no se hicieron, no instalaron la tela asfáltica, y al estar junto a un jardín, el agua se filtra por la tierra hasta la zona de las instala-

ciones. Así, se ha colocado una tela asfáltica y se han instalado correctamente las tuberías, ya que muchas de ellas estaban ya cerradas". El presupuesto de los trabajos ha ascendido a 7.000 euros.

Olatzako bidea, datozen asteetan

Irailean bilera egin zuten Udalak eta inguru horretako bizilagunek. "Urtero herriko bide bat konpontzeko konpromisoa hartu genuen eta aurten Olatzakoa izango da. Bizilagunen eskari batzuk jaso genituen eta azaldu genien obra nola izango den" zehaztu du Luengok. 45.000 euro inguruko aurrekontua izango

du. "Bidea asfaltatzeaz gain, urak bideratuko dira, lur sail batzuetan metroren bat kendu beharko dugu ur kanalak egiteko" azaldu du alkateak. Astebete inguruan arazoak izango dira bide horretan ibiltzeko baina inguru horretako bizilagunen mesederako izango da, bidea oso kaltetuta baitago.



«Urtero herri bide bat berritzeko konpromisoa hartua dugu»

Etxez etxeko gizarte udalen gain

Gizarte zerbitzuen legea aplikatuta, Udalei gastu gehigarria eragin dien araudia aplikatzen hasi da Aldundia.

6

Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren finantziario eredua berria hemen da, Zizurkil bezalako Udal txikien kalterako. 2008an Gizarte Zerbitzuen Euskal Legean jasotako eskumen banaketa dago finantziario eredua berri honen oinarria baina 2015 arte ez zuen garatu Jaurlaritzak dekretu bidez. Eskumen banaketa honetan, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta Udalek eskaini beharreko zerbitzu eta prestazioak jasotzen dira eta ondorioz, besteak beste, Aldundiak bere gain hartu behar ditu Udalenak ziren zaharren egoitzak, eta aldi berean, Udalak etxeko laguntza zerbitzuaren gastua hartu behar du bere gain.

Gastu gehigarria

Eskumenen ordenazio eta

finantziario eredua berri honek gastu gehigarria dakar Zizurkilentzat. "Eskumen banaketa berri honekin, egoitza duten herriek jasoko dute onura, batean aurrezten dutena bestean gastatzeko, baina gure kasuan ez da halakorik, herri txikiak izango dira kaltetuenak", azaldu du Maite Amenabar gizarte zerbitzuetako zinegotziak. 2015ean dekretua kaleratu arren, aurten etorri da etxeko zerbitzuaren finantzazioa aldaketa. "Gauza garbiri ez dakigu ofizialki oraindik, 2017ko lehen bi hiruhilekoetan orain artean bezala Aldundiak %90 ordaindu du baina ondoren aldatu egingo da" azaldu dute Udaleko gizarte zerbitzuetatik. Gipuzkoako Aldundiak eta Udalen gehiengoak adostu-



Cambios en la financiación del servicio social de ayuda a domicilio

La Diputación ha empezado a aplicar la normativa que implica un gasto extra a los ayuntamientos.

El nuevo sistema de financiación del servicio de ayuda a domicilio está en marcha, en detrimento de municipios pequeños como Zizurkil. La base

de este nuevo modelo de financiación se recoge en la Ley de Servicios Sociales de 2008 pero el Gobierno Vasco no desarrolló dicha normativa hasta 2015, cuando se delimitaron las competencias de cada institución mediante un decreto. En el nuevo reparto de competencias, la

Diputación asume el gasto de las residencias municipales y los Ayuntamientos deben asumir el coste del servicio de ayuda a domicilio.

Gasto extra

Este nuevo reparto implica un gasto extra para el Ayunta-

miento de Zizurkil. "El nuevo reparto beneficia a los pueblos con más habitantes que cuentan con residencias para la tercera edad, ya que ahorran este gasto y pueden invertirlo en el servicio a domicilio. Sin embargo, en nuestro caso, no es así; los municipios pequeños so-

laguntzaren pisua,

**«Kasurik one-
nean, 23.000
euro gehiago
jarri beharko
ditu urtean
Udalak»**

takoaren arabera, aurrerantzean %50 ordainduko du gehienez Aldundiak, 2019ra arte. Hori horrela aplikatuko balitz gutxi gora behera 23 mila euroko gain kostua eragingo luke Zizurkilentzat urtero. EH Bilduk finantzaketan murrizketak ezartzearen aurkako jarrera azaldu du eta horrela onartu berri du Zizurkilgo Udalak koalizioako 6 zinegotzien aldeko botoarekin. “Gipuzkoako EH Bildutik salatzen dena da 16 zaharren egoitza hartuko dituela bere gain Aldundiak eta aldiz Gipuzkoako Udal guztiok jasango dugula murrizketa. Iruditzen zaigu murrizketa hori ezin dela kolpean egin”, salatu du Amenabarrek.

“Ez dugu krisia gainditu dela sumatu”

Hedabideetan krisia gainditu dela aipatzen den arren Zizurkilgo gizarte zerbitzuen datuei begira ez dago aldaketa handirik. “Argitu behar da eskubidez jaso daitezkeen prestazio ekonomikoak gaur egun ez dituela Udalak ematen nahiz eta herritarren artean uste hori zabalduta dagoen. RGI-a edo alokairuko laguntzak Jaurlaritzak bideratzen ditu Lanbideetik. Laguntza ekonomikoei dagokionez, Udaletik, larrial-

dietarako laguntzak kudeatzen ditugu eta elikagai bankua bezalako zerbitzua. Larrial-dietarako laguntzak laguntza puntualak dira, une jakin batean, oinarritzko gastu bati aurre egiteko eskatzen direnak beti ere aurrekontu baten eta gastu zehatzen gainean”, azaldu du Anabel Balerdi gizarte langileak.

Hori argituta, zera nabarmendu du Balerdik: “Gure datuetan ez dugu krisia gainditu

dela sumatu. Esango nuke ziklo ekonomikoaren aldaketa sumatu dela lana sortzen hasi delako. Baina sumatzen duguna da jendea lanean ari den arren, laguntza ekonomikoaren beharra izaten jarraitzen dutela. Dirudienez, lanean egoteak, ez du bermatzen oinarritzko beharrak estaltzeko adina diru sarrera izatea. Elikagai bankuari dagokionez, esaterako, iaztik aurtengora apenas mugitu da familia kopurua.

7 Erabiltzaile Zizurkil

Gaur egun, 7 adineko daude Zizurkil en etxez etxeko laguntza zerbitzua eskaintzen zaienak gizarte zerbitzuetatik. “Mendekotasunaren arabera hileko gehienezko ordu kopurua zehaztuta badago ere, beharraren arabera eskaintzen da”, azaldu du Anabel Baler-

di gizarte langileak. Eskaintzen den zerbitzua laguntza pertsonala eta etxeko lanak egiteko dira. “Bakoitzaren beharren arabera zehazten da zerbitzu mota. Azken urteetan eskaerak gutxitu dira, mendekotasuna duten pertsonentzat beste laguntza ekonomiko batzuk indarrean daudelako, esaterako

familiako kide batek zaindu dezan edo laguntzaile pertsonala kontratatzeko”.

Udaletik Amenabarrek argi utzi duena da “diru gehiago jarri behar bada ere, zerbitzuari eusteko konpromisoa du Udalak orain artean bezala, arlo horretan erabiltzaileak ez du kalterik sumatuko”.

mos los que tenemos menos recursos y los más damnificados”, explica la concejala de servicios sociales Maite Amenabar. Aunque el decreto data de 2015, se acaba de aplicar el cambio en el modelo de financiación. “En los dos primeros trimestres la Diputación ha financiado el 90%

como hasta ahora, pero el cambio entrará en vigor en breve, aunque no conocemos la fecha exacta”, explican desde los servicios sociales del Ayuntamiento. Según lo acordado por la Diputación y EUDEL, el ente foral financiará en los dos próximos años hasta un máximo del 50%

del coste. Si en el mejor caso se llegara a esa cifra, Zizurkil tendría que pagar para mantener el servicio 23.000 euros más al año. EH Bildu ha rechazado este recorte y así lo ha expresado el pleno del Ayuntamiento de Zizurkil con el voto a favor de los 6 concejales de la coalición. Eso

sí, Amenabar ha aclarado que el servicio de ayuda a domicilio no se encuentra en peligro: “Tenemos el compromiso de mantener el servicio. Aunque haya que hacer un esfuerzo extra, es un servicio importante para las familias con personas mayores”.

Zizurkil, Azpeitia eta arteak batuta

Gazteart proiektuari esker, hainbat gaztek artean oinarritutako elkartrukeaz gozatu ahal izan dute egitasmoaren lehenengo egonaldian.

8

Urriaren 9tik 15era Zarautzen hartu zuten ostatu, Napoli, Azpeitia eta Zizurkilgo artista gazteek. Helburua, arte plastiko grafikoan oinarritutako esperientziak elkartrukatu eta horren fruituak herriari eskaintzea. Egitarau beteak izan dute gazteek: Euskal Herriko hainbat museo bisitatu dituzte, tartean, Alkizako Koldobika Jauregi eskulturgilearekin ere izan ziren. Azpeitian bi egunez egon ziren tailer ezberdinak egiten eta azken irakaspena,

Maria Altuna zizurkildarraren eskutik jaso zuten Zizurkilgo bertan. Jardunaldi honen emaitza, Plazida Otaño Liburutegiko erakusgunean dago ikusgai. Gazteart proiektuaren inguruan gehiago jakin nahian, Ainhoa Larrea kultur teknikariarengana jo du Plaza-berrik.

Gazteak eta Arteak

Zizurkilgo Kultura eta Gazteria sailean aspalditik zeukaten binomio hori buruan. "Iaz

lehenengo aldiz Gipuzkoako Gaztelekuetako gazteen arteko elkartrukea egin zen. Esperientzia polita izan zen hura, eta Aldundiko Gazteria Sailean lan talde bat sortu zen Erasmus Plus proiektua aurrera eramateko. Helburua, gazteen elkartruke horretan gehiago sakontzea zen. Gu, une horretan Plazida Otaño erakusketa gunea nola kudeatu pentsatzen ari ginen eta proposamen bat luzatu genuen lan talde horretan", azaldu du Larreak ibilbidearen iturburura joz. Proposamena 18 urtetik gorako gazteekin lan egitea eta arteak eta gazteak lotzeko aukerari heltzea izan zen. Izan ere, Larrearen ustez, "adin talde hori zaila da erakartzen eta artearen bidez lortu nahi genuen hori, bide batez

hemengo erakusketa aretoa elikatzeke baliatuz". Zizurkildarrak urte honetan frogatu ahal izan duten bezala, Plazidako erakustokia ez da arte erakuslehioko huts bat, "artistak ez dira bere lanak erakustera mugatzen, beti saiatu izan gara tailerrak antolatzen", gogoratu du, "horregatik, interesgarria iruditzen zitzaigun, herrian eta bailaran artearen inguruan mugitzen ari ziren gazte horiek herriari nolabaiteko dinamika bat eskaintzea".

Aldundiko lan taldean Azpeitiko ordezkariak ere parte hartu zuten. Bertan kultur mugimendu handia dago, eta Dinamo izeneko eraikin bat ere badute, herriko artista gazteei tailer modura erabiltzeko espazioa eskaintzen diena, besteak beste. Begi onez ikusi



Gazteart-eko parte hartzaileak Maria Altunak emandako tailerrean.

Napoliko gazteak,

«Zizurkil bezalako herri batean horrelako proiektu bat izugarria da»

zuten proiektua eta Gaztematikako teknikarien laguntzarekin proiektua Europako diru laguntzetara aurkeztu zuten. "Europatik dirua jasotzeko Europako sozio bat aurkitu beharra daukazu, hori da baldintza". Eta baita bilatu ere: Italiako Napoli hiriko ENNEA elkar-atea batu zitzaizen egitasmora. "Proiektuak sei Azpeitiar, sei zizurkildar eta Napoliko sei gazteentzako aukera eskaintzen du. "Dena den, erakustokiaren eta liburutegiaren beraren filosofiarekin bat, guk eskaintza bailarara zabaldu dugu eta guztira hiru zizurkildar eta alkizar bat ari dira egitasmoan parte hartzen".

Hurrengo geltokia: Napoli

Euskal Herriko egonaldiak eman ditu bere fruituak eta parte hartzaileak dagoeneko abenduaren 5etik 11era Napolin egingo duten egonaldiari begira daude.

Plazaberri urriaren 14an Maria Altunak Atxulondo Kultur Etxean eman zuen tailerrera gerturatu zen ekimena gertutik ezagutzeko asmoz. Gazte kuadrila ederra ingurua zuela azalpenak ingelesez eman zituen. Materiala aurkeztu, zenbait adibide eman eta norbere sorkuntzan barneratu ziren denak. Estitxu Diaz eta Irene Zaldúa zizurkildarrek gurekin hitz egiteko tartetxo bat hartu zuten lehenik. Estitxuk diseinu grafikoa ikasi du eta Irene erreializazioa ikasketak amaitu ostean ikus-entzunezko komunikazioa ikasten ari da orain. "Zizurkil bezalako herri txiki bat horrelako proiektu



Irene Zaldúa eta Estitxu Diaz zizurkildarrak.

handi batean sartu izana izugarria da! Hau aurrera atera beharra dago! pentsatu genuen, eta horrexegatik eman genuen izena", aitortu dute. Horregatik diote "espektatiba jakinik gabe, aukera guztietara zabalik sartu ginen honetan eta gustura gaude". Aipatu dutenez, elkartrukea aberatsa izaten ari da: "Dantza munduko jendea etorri da Napolitik eta arte plastikoan ez ezik, dantzan ere jardun

dugu". Eta guzti horretaz gain, elkartruke batean oinarritzkoena dena, "lagunak ere egin ditugu".

Goizeko tailerrean egingadako lanak Plazida Otaño-ko erakustokian jarri zituzten eta iluntzean inauguratu zuten erakusketa. Honekin eman zitzaion amaiera egitasmoko lehenengo egonaldiari. Erakusketak ordea bertan jarraituko du azaroan zehar, Azpeitiara bidaiatu baino lehen.

Jóvenes de Zizurkil, Azpeitia y Nápoles, unidos por el arte

Gracias al proyecto Gazteart, un grupo de jóvenes de dichas localidades han tenido la oportunidad de participar en un intercambio basado en el arte plástico y gráfico. Se trata de una iniciativa llevada a cabo por los ayuntamientos de Zizurkil y Azpeitia, junto con el departamento de juventud de la Diputación de Gipuzkoa. Todas las perso-

nas participantes han estado hospedadas en Zarautz, y a lo largo de su estancia (desde el 9 hasta el 15 de octubre) han visitado museos, han estado en el taller del alkizarra Koldobika Jauregi y han realizado distintos talleres tanto en Azpeitia como en Zizurkil. Precisamente, el 14 de octubre participaron en el taller impartido por Maria Altuna en la

casa de cultura Atxulondo. Allí conocimos a las zizurkildarras que participan en el proyecto. Estitxu Diaz y Irene Zaldúa son dos de ellas: "Solo el hecho de que un pueblo tan pequeño como Zizurkil impulse un proyecto tan grande como este fue razón suficiente para que nos apuntáramos. Pensamos que esto tenía que salir adelante", comentan. Las dos

se han mostrado contentas con la experiencia que aún no ha terminado. Y es que el 5 de diciembre viajarán a Nápoles para seguir con el intercambio. Los trabajos realizados en el taller de Maria Altuna por los jóvenes están expuestos en la sala de exposición de la biblioteca Plazida Otaño. A últimos de noviembre se exhibirá en Azpeitia.

365 Egun euskaraz egiteko bidean

2018ko azarotik abendura bitartean 11 egun euskara hutsean egiteko konpromisoa hartua du Zizurkilek

10



Oraindik urte osoa falta da erronka handirako, baina Zizurkilek hainbat urrats emanak ditu norabide horretan, eta beste horrenbeste emateko asmoa du datozen hilabeteetan. Soziolinguistika Klusterra kale neurketen emaitzak prestatzen ari den bitartean, euskararen erabilerak hauspotzeko buru belarri dabilta Udaleko euskara sailean eta Pedro Mari Otaño ikastetxean. “2016an ekin genion bideari, parkeetako euskara erabileraren neurketak egin eta ikus-entzunezko baten bidez kanpaina bat

egin genuenean”, gogoratu du Ainhoa Larrea euskara teknikariak. Orduan Pedro Mari Otaño guraso talde batek *EusLider* tailerra egin zuen. EusLiderrek hizkuntza lidergoa indartzea, ahalduztzea, eraldaketa sustatzea eta portaera berriak sortzea dute helburu, eta horretan ari dira gurasook.

Abenduaren 3ra begira

Aurtengo euskararen egunaren bueltan, aste beteko kanpaina prestatzen ari dira Otaño. Dinamika horren lehenengo urratsean ari dira

lanean orain, “Aho bizi”, “Belarri prest” eta “Bihotz bero” rolen zako pin lehiaketa egin dute ikasleen artean. Pin irabazleak euskararen astean eramango dituzte paparrean, eta helburua, eskolako komunitatean ahalik eta jende gehienak eramatea da. Aho Bizi pina daramanak soilik euskaraz hitz egiteko konpromisoa hartzen du; Belarri prest pina daramanari euskaraz hitz egin ahal izango zaio; eta, Bihotz bero pina duenak, oraingoz ezin duela euskaraz ulertu eta hitz egin baina euskararekiko begirunea duela adierazi nahi du. “Behin euskararen astea amaituta, Otaño herriari pasako dio lekukoa, eta urte bat izango dugu herri mailan dinamika honetan segi eta 2018ko azaroan 11 egun euskaraz egin ditzagun herri-tarrak ahalduztzeko”.

Euskalduntzeko laguntzak

Bien bitartean, aurtengo ere Udalak, euskara saila-

ren bitartez euskara ikasi nahi duten herritarrentzako diru laguntzen berri eman du. Matrikularen %75 arte ordainduko dute ikastaro bukaeran, eta Mintzalaguna programan parte hartuz gero %10 gehiago. Baldintzak, Zizurkilen erroldatuta egotea, gutxienez %85eko asistentzia izatea, euskaltegiaren aldeko txostena edukitzea eta matrikula ordainduta izatea dira.

Aurtengo bi talde osatu dira Zizurkilen. Plazida Otaño liburutegian eta Atxulondo Kultur Etxean jasotzen dituzte eskolak. Horietaz gain, gurasoen talde bat sortzeko ere saiakeran ari dira, klaseak umeen eskola orduetan egiteko. Azkenik, Banaiz Bagara elkartetik Euskara Plus ikastaroetan izena emateko aukera dago: Ostalaritza, Zaintza eta Industriarekin lotutako euskara eskolak dira eta interesa izanez gero Udal Bulegoetan eman daiteke izena.

Hacia el objetivo de 365 días en euskera

Zizurkil ha asumido el compromiso de vivir 11 días en euskera desde noviembre de 2018 hasta el 3 de diciembre de ese mismo año. Para ello, comenzó una andadura en 2016 con una campaña que se hizo mediante un audio-

visual tras medir el grado de utilización del euskera en los parques. Entonces, los padres y madres de la escuela Pedro Mari Otaño realizaron el curso Euslider y ahora están preparando una campaña para la semana del euskera. Después,

la dinámica se extenderá a todo el municipio.

Ayudas para aprender euskera

Mientras tanto, también este año el Ayuntamiento subvencionará hasta el 75% de la matrícula para los cursos de

euskera, y si se participa en el programa Mintzalaguna se incrementa la ayuda en un 10%. En Zizurkil se han completado dos clases que se imparten en Atxulondo y en la biblioteca. Más información en las oficinas del Ayuntamiento.

Zizurkilgo jaiak argazkitan

Igaro dira 2017ko Zizurkilgo bi jai nagusiak. Festa batzordeek egindako lan onaren fruitu izan dira, beste urte batez. Plazaberrik zenbait une argazkitan jaso ditu



Onartu berri den protokoloari jarraituz indarkeria matxistaren aurkako mezua eman zen jaien hasieran.



Abuztuaren 15ean Castellers-ek eragin zuten ikusmin gehien.



Sagardo dastaketan giro ederra sortu zen eguraldia lagun.



Apar festan ederki pasa zuten haurrek euren egunean.



Herri bazkariak ehunka zizurkildar elkartu zituen beste urte batez irailaren 9an.

BATIS KORTAJARENA



“Madrilen herri hura non ote zegoen galdetzen zuten”

Orain gutxi egin berri diote omenaldia Batis Kortajarenari halterofilian egin duen bideagatik. Sekulako harrobia eragin zuen Zizurkilen 90eko hamarkadaren hasieran eta horrek jarraipena izan dezan lanean dihardu, erretiroa hartu aurretik.

Familiatik datorkizu halterofiliarako sena.

Bai, aitona zazpi probintziatako txapelkun geratu zen 1896an; ondoren, osaba eta ni aritu gara; eta gero, semeak eta biloba ere bai... gutxienez bost belaunaldi, beraz.

Nola hasi zinen zu?

Atletismo egiten hasi nintzen. 13 urterekin rugbyari hasi nintzen. Jubeniletan maila onera iritsi ginen eta rugbyarako prestakuntza bezala, atletismoa udan egiten nuen. Gimnasioan pultsulariak ikusten nituen eta beti erakartzen ninduen. 19rekin proba egin eta halterofilia rugbyarako prestakuntza modura egin hasi nintzen.

Eta prestatzaile?

Gustatu egiten zitzaidan eta ikastaro bat egin nuen 1978an; 27 urte neuzkan, eta oraindik rugbyari eta halterofilian nenbilen. Ikastaro hori eginda, Donostiako belodromoan talde bat sortu nuen, Burnizaleak, eta gaztetxo batzuekin hasi nintzen. 1981ean Beraunera joan nintzen.

Han gazte pilla zegoen: egunero-egunero 40 umeekin aritzen nintzen, eta atea itxita uzten nuen bestela gehiago sartzen ziren. Bateren bat etortzen ez bazen ate ondoan itxoiaren zegoen lehena sartzen zen. Han sekulako gogoia hartu nion entrenatzeari; ohartu nintzen gehiago atsegin nituela umeen emaitzak baino. Pixkanaka, 35 urterekin apartatu, eta umeekin burubelarri hasi nintzen.

Garai oparoa izan zen Zizurkilgoa...

Oso ondo funtzionatzen zuen, haztegi modukoa zen: Han zebiltzan umeekin probatzen zuten eta gehienak geratzen ziren. Zizurkilen 91n hasi ginen eta 93-95 urte bitarte horietan 4-5 pertsona sartu genituen Blumen eta mundialetara zein Europeotara sailkatzen ziren. Madrilen galdetzen zuten zein zen herri hori, gure taldean denak baitziren zizurkildarrak. Mantentzea zaila zen maila bat lortu genuen. Otañotik pasatako 128 mutil eta 29 neska ibili

ziren txapelketetan. Urte oparoenak haiek izan ziren dudarik gabe; oso garrantzitsuak izan ziren gure taldea Europan ezagutarazteko.

Zein izan da hemen birlakera?

Ni ibiltzen nintzenean 12 talde egongo ziren Gipuzkoan; orain bakarrik Zaratza, Irun eta gu gaude. Arrakasta izan du hemen baina pixkanaka desagertzen joan da. Estatuan maila oso handia dago, batez ere, Galizia, Kanariar Irlan, Katalunian eta Andaluzian. Horietan fitxa pila daude. Guk lizentzia gutxiagorekin maila altua dugu, gure taldea estatu mailan hiru talde onenen artean dago, baina guk hemen ere lana beste modu batera egin behar dugu, ikastetxeetara sartuz, bestela desagertu egingo baita.

Omenaldia egin berri dute. Erretiroa gero eta hurbilago ikusten duzu?

Jubilatu nintzenean, hau ere pixkanaka uztea pentsatzen nuen. Ordu gutxiago pasatzen ditut gim-

nasioan baina jarraitzen dut. Monitore bezala ari dira gazteak prestatzen, ikastaro batzuk ere eman nituen. Badakite besteei zuzentzen. Kontua da planifikazioa oso garrantzitsua dela: ezin da egunero ikaragarri altxa, kargak banatzen jakin behar da, adina, pisua eta altxa dezakeen pisua ere aintzat hartuz... hor ikusten dudanean ondo moldatzen direla, erretiratuko naiz, baratzarekin nahikoa dut nik.

Esaiguzuz:

Herriko pertsona bat. Hiri-rukote bat esango dut: Luix eta bi Bernardok.

Herriko leku bat. Hilerria. 26 urtez egin dut han lan eta hara joaten naiz lasaitasuna behar dudanean.

Zer dago faltan? Hainbeste urte pasa eta gero, jubilatua baino lehen, jarraipena izango duen halterofilia eskola bat ikustea gustatuko litzaidake herrian.

Eta soberan? Ezer ez

B



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria
Herritarren Parte Hartze
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:
SS-1118-2011

Harremanetarako:
plazaberri.zizurkil@gmail.com
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,
Teodoro Hernandorena 6,
20.159 Zizurkil.
Tel. 943-691012
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak,
Ernio Bidea 9A, beheak,
20.159 Zizurkil.
Harrera Orokorra
Tel. 943-693066
Kultura, Euskara, Hezkuntza,
Gazteria y Kirola Saila
Tel. 943692495
Fax 943-693674.